

**“MANUEL LEKUONA 1994”
SARIA EMATEA XABIER
DIHARCE “IRATZEDER-I”**

Baiona 1994. Urriak 29

Isabelle Ajuriaguerra, Jean Haritschelhar,
Gregorio Monreal, Xabier Diharce “Iratzeder”

RIEV. Revista Internacional de los Estudios Vascos.
Año 42. Tomo XXXIX. N.º 1 (1994), p. 483-512
ISSN 0212-7016
Donostia: Eusko Ikaskuntza

ISABELLE AJURIAGUERRA

Chers amis,

Je vous remercie d'être parmi nous pour fêter Xabier Diharce à l'occasion de la remise du Prix Manuel Lekuona par Eusko Ikaskuntza. Je remercie tout particulièrement les personnalités qui se sont déplacées de tout le Pays Basque à cette occasion.

Vous me pardonnerez de ne pas vous remercier individuellement puisque vous nous avez fait l'honneur de venir si nombreux.

Adixkidea,

Eskerrak emaiten dizkizuet Aita Xabier Diharce Iratzeder ospatzeko etorri zaretenoi.

Eusko Ikaskuntzaren Iparraldeko lehendakariorde gisa zuzentzen natzazue egun gure erakundeak olerkari huni Lekuona saria emateko kariatetan. Bereiziki, Euskal Herri guztitik etorritako agintari ta lagunei eskerrik ainitz.

Hain ugari etorri zaretelako barkatuko didazue denei banaka eskerrak ez ematea.

Kargu handia neretzat gure mirespen eta eskerra Aita Xabier Iratzeder-eri erakustea! Haritschelhar Jaunak eta iratzeder berak nik baino hobeto bere biziaren bidea jakinaraziko digute.

Beraz bakarrik emanen dizuet, umilki bada ere, ene sendimendua. Iratzeder begiratzuz, mutiko gazte bat ikusten dut, ene bihotzean sartu den begi argiko mutikoa. Bere neba-arrebek hogeita hamargarren urte hamarkadan, Donibane Lohitzunen, eskualerrista mugimenduaren sortzean parte hartu zuten.

Eta hura, lekuko behatzaile gisa, irudikatzen dut, jadanik deneri banatuko digun altxorren biltzen hasia. Arrastero, hamar euskal hitzen uzta, puxkanaka, egiten zuen.

Beraz ikusten dut, bere hitzekin jostatuz lokartzen, elkar kantaraziz, elkar kiskatuz, adin horretan, besteek kanikak sakelan kiskatzen ari zirenean.

Helduek xirxil irizten dituzte haur guziek dituzten altxorrak. Helduek ametsak galdu duten indarra, daukate haurrek dituzten ametsak. Aita Xabierek holako indarra eta holako haurren ametsak gorde ditu gure zorionsu egiteko.

Arabiar erranaren arabera "arimaren etxea da hizkuntza". Milesker Aita Xabier, bihotz bihotzetik: eman dizkizigu etxe ederra eta arima ederra.

Lourde responsabilité que de tenter de manifester à Aita Xabier Iratzeder notre admiration et notre gratitude!

D'autres sauront mieux que moi, savamment, nous exposer son parcours. Aussi me permettrai-je seulement de vous donner, modestement, mon sentiment.

En regardant Iratzeder, c'est un petit garçon que je vois, un petit garçon au regard clair qui m'est allé droit au coeur. A Saint-Jean de Luz, dans les années 30, ses frères et sa soeur ont été partie prenante de la naissance du mouvement eskualerriste. Et lui, que j'imagine témoin attentif, avait déjà commencé à accumuler un trésor qu'il nous fait partager à tous. Chaque soir, il engrangeait patiemment dix mots d'euskera. Je l'imagine ainsi, s'endormant en jouant avec ses mots dans sa tête, les faisant chanter, s'entrechoquer, à l'âge où d'autres jouent à faire claquer des billes dans leurs poches.

Tous les enfants ont de petits trésors que les adultes jugent dérisoires. Tous les enfants ont des rêves qui ont une force que les adultes ont souvent perdue.

Aita Xabier a gardé la force et les rêves de cet enfant pour notre plus grand bonheur.

Valéry disait: "le plus profond chez l'homme, c'est la peau". La 1ère fois que j'ai entendu les Psaumes, j'ai eu la chair de poule et mon coeur a raté une marche, grâce à la musique d'Aita Lerchundi, grâce à la musique de mots que je ne comprenais pas encore. Puis cette émotion m'a poussé à chercher à comprendre cette alchimie qui faisait passer une joie profonde, et j'ai trouvé la force de l'enfant: une passion au sens strict du terme, la passion de Dieu, de cette terre, de cette langue. Mais c'est une passion active qui le guide et lui permet, à sa manière et avec d'autres comme le chanoine Lafitte, d'ouvrir un chemin, obstinément. Le romantisme échelevé de Chano parlant de la langue basque comme d'un talisman peut faire sourire, mais si vous écoutez vibrer les mots d'Iratzeder en fermant les yeux, vous verrez que c'est vrai.

Selon un proverbe arabe: "la langue est la maison de l'âme". Merci à vous Aita Xabier: vous nous offrez une bien belle maison et une bien belle âme.

JEAN HARITSCHELHAR

Eusko Ikaskuntzako buru jauna,
Agintari agurgarriak,
Euskaltzainkideak,
Andereak eta Jaunak, agur

Atzo, Aita Villasante-ren omenaldia genuen Bizkaiko Foru Aldundian; egun, bilduak gara Aita Xabier Diharce "Iratzeder"-en inguruan, Manuel Lekuona saria eskaintzen diolaketz Eusko Ikaskuntzak. Atzo, euskaltzain bat ororatua, gaur bertze bat, biek goraki daramate Euskaltzaindiaren omena. Nolaz ez da bozkariatuko Euskaltzaindia horrelako bi ekintzekin?

Ez naiz Aita Xabier-en bizitzaz mintzatuko, are gutiago haren obraz. Halere, badu orai 32 urte elgar ezagutzen dugula, 32 urte elgarrekin sartu gara Euskaltzaindian, hala erabaki baitzuten orduko euskaltzainek, 1962-ko uztaileko bilkuran. Zu, sortuz gero, Euskal Herrian bizi zinen, ni aldiz berrikitan Euskal Herriratua.

Frailetu zinenean, utzi zenuen aitamek emanikako izena eta bertze bat hautatu zenuen, euskaldun saildu batena, Xabier nafatar misionest haundiarena, harek bezala zuk ere erroak Euskal Herrian eta gogo mundu zabalean. Belokeko xoko hartarik hobeki ikusten baita mundu zabalaren Zabala.

Aruten, Manuel Lekuona saria emana zaio Iparraldeko olerkari bati, Iratzeider-i. Hau da literaturako hautatu duzun izenordea. Zuharek badakizu zertako, bainan izen eta izenondoa juntatuz, susmatzen dut gogoan zenuela gure mendietako landare nasaia, berdea primaderan, emeki emeki urre-gorritzen dena udazkenean, kolore biziez apainduz bazter guziak.

*Mendietan den ederrena
iratze ostoia
Zuhaitzetan jaunen jauna
aiten haitz-ondoa.*

Nolaz ez dio olerkariak "iratze" izenari emanen "eder" izenondoa? Hala hautatu duzu orai berean aipatu dudan bertsoan. Alabainan, olerkariak dauka bihotzean ederraren lillura, edertasunez jaunzten duelarik sortzen dituen olerkiak, hitzak elgarrekilan josiz, hitzak neurtuz eta bidenabar ederraren ederra sortuz, ederraren pindarra piztuz.

*Nere pindarrak bihotz zonbeitetan
pindar piztuko duelako esperantzan*

Bi neurtitz horiek idatzi dizkidazu *Biziaren olerkia* liburu ederraren eskaintzan. Ene go-goan daude geroztik, ezin ahantzizkoak.

Elgar ezagutu aitzin banuen zure berri, olerkien bitartez, haien artean Etxahunez egin zenuena, *Gure Herrian* agertua 1957-an.

Behar zen, zinez, olerkaria izan, ulertzeko lehenik, adierazteko gero zer izan den Etxahunen bizia.

*Etxahun
Izen bero, izen ilun
Etxahun.*

Lau aldiz agertzen den errepikak erakusten du nor zen Etxahun eta izenak salatzen badu izana, "izen bero"-k nabarmentzen du Etxahunen sukarra, "izen ilun"-ek ukan dituen nahiga-beak. Behar nuke olerki osoa irakurtu hobeki adierazteko Iratzeider-en sendimendua Etxahunen biziaren aitzinean. Asmatzen du, azken urteetan bezala, herriz-herrri dabilala, nonbait, eskale bilakatua:

*Non habil orai Etxahun, zoin bidetan kantuz
Hire pertsuño minkorak jender karkailatuz?*

*Hire bihotz kartsu eta zabalegi hori
Bidetan ote deramak zarrapo ta zauri?*

*Herrestan ote haiz beti beilaz beila joaki
Ezpain zimurak irri, barnea urriki.*

Hitz laburrez, bakoitzak bere indarra daukala, dena errana da. Hor daude Etxahunen bi aurpegiak: kanpotik irri eta karkaila, barnetik zarrapo, zauri eta urriki.

Badabila Etxahun, arima erratuaren pare:

*Hor haiz ote aize luzek, gau-intzirak lagun,
Gauetz-gau diotelarik: Etxahun, Etxahun...?*

Eta azken eske horretan "minez, maitez, errabiaz pertsutzen zen" Barkoxtar koblaría ba-
doa, betiereko bilatzaile bilakatua.

*Bai, doala, bidez bide eta beilaz beila
Euskal anaien amorez Jainkoaren bila...*

Behar zen olerkaria izan horrelako olerki baten idazteko, hain sakonki zilatzen duena
Etxahunen izana.

Edozein olerki hauta nezakeen, bainan aise ulertzen duzue zertako hautatu dudan hau,
ene orduko ikerketak gogoan atxikiz. Eta hain zuzen ere, Beloken idatzi dut ene tesiaren biga-
rren parte, Belokeko ixiltasunean, lan baliosa egin baitut fraileen bizitzeko manera neregantuz.

Behar zen ere olerkari izan Salmoen euskaratzeko, kantua kantu egon zedin beste hiz-
kuntzetan bezala gurean ere. Hori egin du Aita Xabier-ek, Beloken liturgia berrizatzeko taldea
sortuz, fraile eta apez zenbait, elgarrekin lanean, eskuz esku, anaitasun haundienean, euskal-
dunek ukan zezaten bertzeek bezala Jainkoaren otoitzeko ahala euskaraz. Obra eder eta mi-
resgarria izan da orduan Beloken egin zena.

Bigarren aldikotz, Manuel Lekuona saria Iparraldeko batek dauka: lehena Eugène Goyhe-
neche historiagilea, goizegi zendua, bigarrena zu zara, Aita Xabier.

Pentsatzen dut olerkaria nahi ukan dutela ohoratu. Arrazoinekin naski. Hautu ona egin
dute ezen norbaitek Iparraldean merezi balin badu sari hori, zuk merezi duzu, sortu duzun
obrarengatik, beti gogoan zenuela Jainkoa eta herria eta bi horien arteko lokarria: euskara.

Zorionak beraz, bai Eusko Ikaskuntzari, holako hautu bat eginik, bai zuri ere Aita Xabier
"Iratzeder", Euskal Herriari egin diozun paregabeko emaitzarengatik.

*Gizonak ixiltzen balaki,
nasaiki baluke naski
bere bizian olerki.*

*Gizonak sinesten balaki,
noiz nahi lezake hunki
Jauna berekin ibilki.*

*Gizonak mintzatzan balaki,
gozoki lezake aurki
zoin den bizia olerki*

Errepikatzen dut lehen bertsua:

*Gizonak ixiltzen balaki,
nasaiki baluke naski
bere bizian olerki.*

Olerki eta olerkariaren aintzinean ixiltzen naiz, beraz.

GREGORIO MONREAL ZIA

—Agintariak

—jaun-andreok, Agur!

Nire hitzaldia laburra izango da zeren eta ezagunak baitira sarizatua izan den pertsonen merezimenduak, aurreko bi hizlariak ongi agerian jarri dutenez. Eta ez nituzke, ekitaldi honetara etorri zaretenok, gehienbat hitz idatziaren ohitura duen gizon honi luze aditzeko pribilejio bakanaz gabetu nahi.

Lekuona Saria 1983an eratu zuen Eusko Ikaskuntzak, bai bazkideen eta bai Elkarteko Baztorde Iraunkorreen ordezkatuak diren erakundeen aldetik, urte askotan Euskal Herriko balio kulturalak defendatzen eta goratzen ahalegindu diren pertsonenganako ezagutza adieraztearren. Sanaren balioa, orain artean jaso duten pertsona hauen erliebe moral eta intelektualetik dator soil-soilik. Gure herri txiki honetako lau kantoietan eginiko ekitaldi ospetsuetan banatu du Eusko Ikaskuntzak bere Lekuona Saria, Euskal Herriko lurralde guztietako pertsonalitateen artean.

Esan beharra dago sariztatu diren pertsonen zerrendan Eugène Goihenetche aurkitzen dela, askok eta askok bihotz hunkiduraz eta sentimendu handiz gogoratzen duguna; 1989an Uztaritzeko herriko etxean "à titre postum" hartu zuen saria historialari eta maisu handi han. Menturaz, azpimarratu beharko genuke hemen, Aita Iratzederrekin lau eliz gizon saritu izan direla, zientzian eta balio moralen alorrean gizon bikainak lauak (—On Manuel Lekuona bera, Sariaren instituzionalizazioa markatu zuena, Aita Jorge de Riezu eta On Andrés de Mañarikua—): ezbairik gabe, Elizak gure kulturari dion atxekimenduaren eta gure herriaren iraupenaren alde obratu duen ekarriaren erakusgarri.

Je crois que bien des membres d'Eusko Ikaskuntza suivons avec attention un discours qui gagne en audience sur l'identité plurielle d'Euskal Herria qui, en réalité, et malgré les époques obscures, n'est pas si nouveau en terre basque. Il est vrai que l'héritage culturel que nous avons reçu de nos ancêtres est multiple, et un petit peuple comme le nôtre devrait être capable de tirer de grands avantages d'une pluralité culturelle qui se trouve dans sa propre constitution historique. Il convient de rappeler que Joannes Etxeberri, celui de Sare, élaborait en 1719 un Dictionnaire quadrilingue —en français, euskara, espagnol et latin, cette dernière langue pouvant être considérée la langue académique commune de l'époque—, ou qu'en 1756 le penseur basque le plus important du XVIII^{ème} siècle, le jésuite de Gipuzkoa P. Larramendi, en proposant un modèle éducatif pour le nouvel "être" politique qu'il promulgait —Les "Provinces unies des Pyrénées"—, insistait sur le fait que les jeunes basques apprennent dans les écoles les quatre langues citées plus haut, à peu près la même chose que si aujourd'hui on ajoutait l'anglais à l'euskara, au français et à l'espagnol. Il serait souhaitable que les habitants de la Basconie d'aujourd'hui soyons à la hauteur de ces grandes personnalités du XVIII^{ème} siècle, qui étaient convaincues que ce pays serait quelque chose s'il réussissait à intégrer les trois langues. Dans ce sens, il y a des raisons de penser que non seulement nous ne nous en approchons pas, sinon que nous nous éloignons chaque jour davantage d'un idéal d'espace basque pluriculturel, au moins si nous tenons compte de la chute de l'enseignement de la langue française dans le système éducatif des deux communautés autonomiques de l'Euskal Herria péninsulaire pendant ces vingt dernières années. Si les tendances actuelles ne changent pas complètement, il sera très difficile si non impossible de remplir les aspirations que formulait récemment le Ministre Alain Lamassoure comme quoi "il faut tout d'abord créer un véritable espace culturel, sur le plan universitaire et de l'enseignement".

Cela étant, une entité comme la Société d'Etudes Basques qui, de ses Statuts assume l'utilisation des trois langues officielles, est consciente de l'extrême inégalité dans laquelle se trouvent les différentes cultures dans notre pays; il va sans dire que pendant que les cultures française et espagnole, soutenues par des centaines de millions d'habitants et par un prestige mondial, ont leur existence et leur vitalité assurées en Euskal Herria dans le prochain siècle, la langue basque se trouve plutôt dans une position d'être ou ne pas être.

Il faut situer dans ce contexte le profil de l'homme auquel nous rendons hommage aujourd'hui. Ainsi que les littérature slave, hongroise, roumaine, baltique ou finlandaise, la littérature basque n'avait pas encore abordé —le XIXème s. étant bien avancé— d'autres thèmes que ceux proprement religieux ou didactiques. Si le point de départ était similaire, la formation d'une littérature d'art s'est vue retardée en Basconie par l'extrême faiblesse de la communauté parlante fragmentée, condamnés à la marginalité par la façon concrète dont nous avons été obligés d'assumer la modernité en Euskal Herria. Pour la simple raison que lors des deux derniers siècles il nous a manqué le support institutionnel minime qui permet aux peuples la réception de la culture universelle et l'adaptation continue à celle-ci de la propre tradition culturelle. Francis Jaureguiberry a démontré récemment les mécanismes par lesquels la pression moderniste fait vivre l'utilisation de la propre langue comme un stigmate et comme une souffrance, assumant le status de basco-parlant dans le sens péjoratif. Dans ces conditions il était inévitable que pendant les deux derniers siècles se soit rompue l'habitude millénaire de la transmission familiale de la langue.

Dans ce contexte nous devons inscrire la question, un peu inquiétante, de la fidélité à la propre communauté linguistique d'un aussi grand poète que Iratzeder: pour quoi et pour qui crée-t-on une littérature d'art? Les explications seraient compliquées mais laissons Simone Weil expliquer ce qui pourrait être le motif central quand elle dit que: "l'enracinement est peut-être le besoin le plus important et le plus méconnu de l'âme humaine. C'est un des plus difficile à définir. Un être humain a une racine par sa participation réelle, active et naturelle à l'existence d'une collectivité qui conserve vivants certains trésors du passé et certain pressentiments d'avenir".

Et bien, si à la fin de ce XXème siècle nous pouvons constater qu'on a évité le désastre total, nous le devons à l'effort admirable d'une génération d'hommes comme celui à qui nous rendons hommage aujourd'hui. Par conséquent, nous devons nous incliner non seulement devant l'oeuvre poétique du Père Iratzeder, ou devant l'auteur de théâtre ou devant l'éditeur et promoteur culturel, mais aussi devant l'homme dans sa totalité, devant la conduite et le comportement exemplaire de Xabier Diharce tout au long de sa vie.

En décrétant ce prix, Eusko Ikaskuntza recueille l'opinion des membres et des Universités et entités scientifiques et culturelles représentées dans son Assemblée Permanente. Je crois que pour la satisfaction de tous je dois déclarer qu'une représentation universitaire de la Faculté pluridisciplinaire de Bayonne s'est incorporée dernièrement, et que nous désirerions compter sur la présence de l'entité qui, en ce moment, à la plus grande représentation et responsabilité dans le maintien et la promotion de la culture basque en Iparralde.

Je fais allusion, évidemment, à Euskal Kultur Erakundea/Institut Culturel Basque, entité avec laquelle nous désirerions coopérer dans la mesure de nos forces.

Nous continuerons à nous engager dans la tâche d'étudier les structures de tout type, passées ou présentes, qui encadrent la vie de notre peuple; nous continuerons à nous efforcer de préserver et actualiser le legs reçu de nos ancêtres et diffuser en Basconie la culture universelle. Les articulations de la communauté scientifique qui oeuvre des deux côtés de la Bidasoa devrait être un des résultats de l'engagement.

Nous tenons à témoigner la gratitude d'Eusko Ikaskuntza au Président de Euskaltzaindia, Jean Haritschelhar, pour sa participation à cette cérémonie. Egalement à Pierre Charriton, auteur de la bio-bibliographie du Père Iratzeder que nous présentons aujourd'hui. Et nos remerciements à toutes les autorités et à tant d'amis qui, par leur présence dans cette chapelle, rendent un hommage d'affection et d'admiration à Xabier Diharce qui les mérite à plus d'un titre. Merci beaucoup. Mila esker.

XABIER DIHARCE "IRATZEDER"

Aspaldiko zorra

— Aspaldiko zorra badut Gipuzko-Bizkaitarren alderat: euskalzale eta euskal-idazle naieneko zorra.

Titikik amarekin euskaraz ari izan nintzen; gero eskolak eta karririk erdaldundu ninduten. Zeri eman behar nion nere geroko izaitea?, zeri zabaldu nere bihotz gogoak?

Aita, diru-etxe baten buru eta Parise-ko jaun handiekin har-emanetan izanik ere, euskarari atxikia zen. Bazkaltzen ari ginelarik sartzen zitzaikunean, gure erdal-solasak aditzearekin, oihu egiten zuen: "Euskaraz!" Orduan gu, beldurrez ta euskal-hitzak ez jakinez, ixiltzen ginen eta mututzen.

— Horiek hola, banindagon maiz etxeko leihotik beha: ikusten nituen erdal-jendeen uhainak iragaiten eta euskal-lurra ondatzen ari, euskaldungoa itotzen ari.

Ikusi dut aldiz, egun batez, Gipuzkoa-ko dantzari-talde bat kantari iragaiten, xuri-gorri-ferde jauntzitan, dena txistu, dena kantua. Entzun dut ere, "Gure Etxea" deitu tokian, *Aitzol* kar handiko apezka mintzo: "Lapurdiko, Benabarreko ta Ziberoko Euskaldun anaieri: bihotz bihotzetik agur!"

— Ni baino zaharragoko nere bi anaiak bazabiltzan ikas-bidetan aintzinat, bat armadan aintzindari bilakatu beharrez eta bertzea auzitegi-tako lege-gizonetann eleketari. Hamalauueko gerla-ondoaz eta urte hetako politikaz aita errana aditzearekin, nere baitan egin nuen: gerletan irabazia hautsi-mautsietan galtzen da; auzietan erran solas ederrak berriz eta jazko haizea berdintsu... Apez eginen naiz, betiereko bizia sar-araziko dut euskal-bihotzetan.

Aitaren ganat joan nintzen: "Nahi dut apeztu". —"Zer? hi apez? ez dakik-eta euskara". Arrats hartan berean hasi nintzen, *Piarres* liburua harturik, euskal-hitzak gogoz ikasten: egunean hamar hitz. Iduritu zait ere ez zela kantua bezalakorik euskararen nitan barneratzeko. Ikasi nuen lehen kantua: "Ikusten duzu goizean", aita erakutsi zautana eta "zertifika-ko etsamina" kantatu nuena.

Piztu zitzaitan ere euskal-pertsuak egiteko karra. Kiskun-kaskun baditut horrela, hamabi urtetan, batzu eginak, "ikusten duzu" kantuarekin, Eskolako zaintzale garratzegi baten aurka.

Ondoko urtean Uztaritze-ko apezgaietan sartu nintzen, haatik; eta, goiz guziz Mezan lagundu-eta, *Lafitte* apezari erakusten niozkan noiztenka nere lehen pertsuak. Ez zautan erraiten ederki zela, bainan bai aintzinat joateko.

Hamabortz urte nituen, lehen aldikotz agertu zirenean, Gipuzkoan, "Poxpolin" aldizkarian, nere pertsu batzu, *Lopez Mendizabal Ixaka-ri* igorriak:

"Jainkoaren ainara etortzen denean
Ohantze egiterat etxe-hegazpean,
Zer zorion handia dutan bihotzean,
Zeren izanen baita bizia lurrean.

Handik laster, *Lopez Mendizabal* ihesi etorria baitzen *Donibane-Lohitzune-rat*, ikusi dugu maiz elgar; eta, pertsuak baino beharrezkoagoak baitzituen orduan (beretzat eta etxekoen-tzat) jatekoak, ekartzen niozkan noiztenka arrain fresko-freskoak.

Uztaritze-n Euskara baino frantses, latin bai eta español gehiago erakusten zaukuten; baina ni, lan eta ikasi behar guziak bururaturik, eguneko bi azken orenetan, euskarari lotzen nintzen karraskan.

"Bi Eskualdun sailduen bizia" aita *Laphitz* lsisartarraren liburu zahar bat eman zautan *Lafit-ek*; Zirri-zarra ene eskuz ezarririk, hartu nuen dena, bururen buru.

— Hainbertzenarekin, *Gernika-ri* su eman ziotela jakin nuenean. Piztu zautan su horrek neri... pertsu:

Gernika !
Orai datza ohiko
Kartago bezaia,
Paret beltz handi batzu
baizik ez dauzkala.
Jazko Euskaldun iri
haren gorputz hila
Nigarrik egin gabe
nola ikus ? nola ?
Gernika !"

Aintzineko urtean, hogoi-ta hamaseiko udan, *Beloke-n* osaba-ren agurtzen iraganik, ikusi izan nuen han *Aitzol*; eta, *Hernani-ko* hil-harrietan tirokatu zutela jakin nuenean, hasi nintzen pertsu ontzen:

"Garrak ezeztatu nahiz, bihotza dute zilatu;
Bainan gure bihotzerat gar hek zaizkigu airatu;
Zure heriotzak, Aitzol, fruituak emanen ditu.

Donibane-Lohitzune-rat etorri iheslarietan hobekienik ezagutu dutana: *Tomas Garbizu* soilularia. Zenbat arratsalde iragan ditudan harekin, itsas-bazterrean ala etxe-xokoa, euskal-suz eta pertsuz bihotza bazkatzen:

"Orduan zen Eguberri !
Tomas, orroit ote zira
Su-garren sorgin-dantzeri
Nola ginauden begira ?
Lotuz kantu xaharri.

Noiz, Jaun Goikoa, noiz zaizko
Supazterrari goxorik
Sistuño hek berpiztuko,
Anaiak bateraturik ?"

40-an Gipuzkoarat itzuli da Garbizu, bainan har-eman frango izan dugu beti. Huna hare-kin egin kantu bat: munduaren azken Egunekoa. Aspaldiko aire edo soinu horri eman zion *Garbizu-k* hiru bozetako apaindura eta nik hitz berriak.

Né à St. Jean-de-Luz, au premier étage de "La Banque Populaire du Pays Basque", j'ai été dans cette rue Gambetta que nous dénommions "karrika nausia", malgré moi immergé dans le flot irrésistible des estivants; et, si j'ai enfin émergé, c'est grâce à l'idéal qui s'est mis à sourdre dans mon coeur d'enfant: idéal du service de mon peuple par le don total à Dieu.

JESU-KRISTO, ZU ZARE ZU DENEN JAUN
Christ Jésus, c'est toi le Maître de tout

S.4
(3 v. égaies)

JESU-KRISTO, ZU'ZARE

Airea: "Aditzen da tronpeta lazarria".

Hitzak: Iratzeder (1971)

Harm./T. Garbizu (1971)

Maestosa $\text{♩} = 72-66$

I.
de-nen jaun

B.

1. Je-su-Kris-to, zu-zar-re zu de-nen jaun: Gaur zu nau-si jauts-e-ta, nork i-

nork i-raun? Fe-de-dun-ak, ez e-tsi, ez i-lun jar: Kristo Jaun-ak du be-

raun? Fe-de-dun-ak, ez e-tsi, ez i-lun jar: Kris-to Jaun-ak du be-

rriz jin be-har. De-nak xu-ti es-ku-tik

rriz jin be-har. De-nak xu-ti, gaur el-gar es-ku-tik har

har: guk ar-gi, guk in-dar.

Kris-to be-ti guk ar-gi, guk in-dar.

FIN

2. i- guzki- a
3. e- za- rri- a

2. E- gun har- tan hil- en da i- guz- ki- a —, il- ar- gi- an e- re
3. Ha- ra nun den gain har- tan e- za- rri- a — sal- ba- tu- en e- za-

2. ... ar- gi- a, Na- has- i- ko bet- be- tan goi- in- da- rrak,
3. ... ar- gi- a, Kris- to Jaun- a lu- rrak har i- zan- en du,

2. bai ar- gi- a —, Na- has- i- ko bet- be- tan goi- in- da- rrak,
3. guf ga- rri- a —, Kris- to Jaun- a lu- rrak har i- zan- en du,

2. E- ro- ri- ko ze- ru- rik i- za- rrak. i- tsa- so- a
3. He- doi- e- tan gu- zi- en jaun hel- du. hur- bil bai- ta

2. E- ro- ri- ko ze- ru- rik i- za- rrak. i- tsa- so- a mar- ru- maz en- tzu-
3. He- doi- e- tan gu- zi- en jaun hel- du. Hur- bil bai- ta Jaun- ren E- rrei-

2. — en- tzu- ter- an — e- gon- en i- ko- ran. — Fededunak...
3. — E- rrei- nu- a — or- du- an bu- ru- a. — ...

2. — en- tzu- ter- an —, Lu- rre- ko- ak e- gon- en i- ko- ran. — Fededunak...
3. nu- a —, Goi- ti zu- ek or- du- an bu- ru- a. — ...

II

— Orduz geroztik ez naiz olerki ontzetik gelditu, bihotza dena pindar eta amets-lano.

Hogoi-ta bat urtetan fraidetu bainintzen, galdetu zautan laster aita *Lerchundi-k*, bere liburu-rako, eskas zituen kantikak asmatzea. *Mugerre-tik*, bertzalde, etorri zitzaian *Urricariet* jaun apeza: ez ote nituen nik igandetako Bezperak euskaralat itzuliko?

Bordale-ko ikasletan baziren ere galdezka zabiltzanak: hurreko euskara ahantzixea zute-la eta, ez ote ginioten guk berriz-ikasteko liburu errex bat argitaratuko?, hola hasi ginen bi fraide gazte eta ni, "La Methode basque" asmatzen eta moldatzen.

Hiruzpalau orrialdeko liburu hori argitarazteko, atxeman nituen behar ziren tresnak; bainan papera, nolaz dirurik gabe aurki? Gipuzkoan aurkitu nuen; nundik nolaz, haatik, hainber-tze paper, mugan iragan-araz?

Gaztiatu zautaten: irrisku gehiegi zela... Azkenean nihau joan nintzen, fraide-lagun bat oto-gidari harturik. Banakien delako paper-meta *Irun-en* zagola; bainan... nun? Bertzalde, no-la, guarden ixilik har eta eremaiteko, jenderi galdezka ibil? Bertzerik ezin eginez, ikusten du-tan lehen andere xahar bati geldegiten diot: nun bizi ditaken ene paperak zauzkan, delako gizona? Eta andere xahar harek ihardesten daut: "Ene semea da".

Haren etxeraino joanik, paper guziak beribilan sartu ginituen; eta *Hendaia-rat* abiatu gi-nen. Gu mugarat heltzean, guarden harritzea: "Zer dituzue hoik guziak?" Egia erran, jasan-ahala karga bazuen beribil gaixoak. Hain harrituak ziren guardak eta gu bekatu-aintzineko so-las ederrez hain beteak, nun utzi baigintuzten... iragaierat. Gure oto-zenbakia harturik, haatik, *Bordale-ko* guarda-aintzindariari salatu gintuzten. Han, aintzindarietan, *Beloke-ren* adiskide bat gertatu; eta ez zuen gure jokoak bertze ondoriorik izan.

Ondoriorik ez, bainan fruituak bai: ehunka zabaldu ginituen, euskara ikasteko gure liburu hoik. (Horra, beraz, nola ziren EZKILA edizioeak sortu...) (I oharra: p. 508).

— Hasian hasi, Gipuzkoa-ko paper horiekin euskal-elizetarat zabaldu ginuen agerkari an-dana bat: *Ezkila eta xirola, Egueri, Herri-mina, Gau saildua, Meza sailduko kantikak* (laster Bizkaieralat itzuliak izan zirenak), *Ezkongai* (hau ere Bizkaieralataua) eta bereziki *Pasionea*, Gi-puzkoan ere emana izan dena (Arantzazu-n, Zumarraga-n eta berrikitan Zarautz-en).

Antzerkiak ere egin ginituen: *Harrapallu, Mortutik oihu*; bai eta, hogoi ta hamalau urtez, *Otoizlari* agerkaria.

Nundik ez aipa ere, bederen: *Fededunen Arbasoa*, Bilbo-ko Bengoa-k soinu-z handizki apain-du dautana eta Durango-ko Zugaza-k argitartau zuena. *Bengoa-k* organo-rako edo soinu-talderako egin apaintzeak, haatik, errautspean dauzkat beti, argitaratu-gabeak. Bainan badita-ke, hortarako ere, mendiz bertzaldetik bide bat agertuko zaitala noizbeit, hala-nola gertatu baitzait ene azken liburuarentzat: *Hamazazpi Hilabete, Afrika-ko bihotzean*. Egia erran, ez litake lehen aldia: horrela ustegabeen argitaratu zaizkit Bilbo-ko Mensajero-n: *Biziaren Olerkia* eta Beloke-ko historia edo *Ehun urte, Jainkosemeen alde*.

— Gipuzkoa-ri eta Bizkaia-ri zorrik handiena dutenak, haatik: *Salmoak* eta euskal-liturgi lanak.

Ene ehun ta berrogoi-ta hamar euskal-salmoak besapean joan nintzen, orai hogoi ta ha-mar urte, Gipuzkoan eta Bizkaian barna: ea nun eta nola liburu hori argitaraz.

Aita *Baztarrika* eta *Karlos Santamaria* jaunarekin egon nintzen *Donostia-n*. Gero, heiek bultzaturik, *Lekeitio-raino* andere *Goiri-ren* ganat joan nintzen eta, handik, *Bilbo-ko Castor Uriarte*

jaunaren mintzatzerat: Hor hitzemaña izan zitzaite: behar nuen dirua aurreratua izanen zitzaitala. Aita *Lino Akesolo* lagun, *Ordorica* inprentarat joan nintzen, beraz; eta, hor, euskal-liturgi berriak beharrezkoa zuen "Salmoak" liburua argitarazi.

Horiek hola, mila bederatzi ehun ta hirurogoi-ta lauan, *Kontzilio* ondoko urrats berriak hartu behar baitzituen, hor izan zuen *Baiona-ko* euskal-Elizak baitezpadakoa zuen liburua.

Gipuzkoeralatu zituen ipar-aldeko salmo hoiek aita *Baztarrika-k*; eta aita *Lino Akesolo-k* Bizkaieralatu.

— Aita *Gabriel Lerchundi* eta *Narbaitz* jaun apezaren ondotik, hasi zaizkigu mendiz bertzaldeko soinulariak beroki lanean: *Jose Olaizola-k* laupabortz salmo apaindu dauzkigu; *Tomas Garbizu-k* hogoi eta, bertzalde, larogoi-ta hamabi orrialde dauzkan "Babiloneko" salmo hedadura handikoa; *Juan Urteaga-k*, azkenean, zenbat dituen hiru edo lau bozetan emanak, zeruko aingeruek dakikete ... Hogoi egun hil-aintzin, bere soinu-paper guziak utzi dauzkit...

Bortzpasei urte huntan, Afrikatik itzuliz geroztik, ari naiz *Urteaga-ren* soinu-lan hitzik gabekoeri hitzak asmatzen; baina gero nolaz hek argitaraz?, ez da-eta musika, patata bezein errexki, sal-erosten ...

Si j'ai fait, tout au long de ma vie, de nombreux chants et poèmes basques, c'est que tout jeune, j'étais passionné de musique populaire; et puis surtout, grâce à de longs repos forcés, je pus m'imprégner des innombrables mélodies recueillies par le P. Donostia.

Depuis lors j'eus la grâce de rencontrer, non seulement le P. Gabriel Lerchundi de Belloc, mais Jose Olaizola, Tomas Garbizu et surtout Juan Urteaga.

Voici son "ELGARREN OGI"

D.4

(3 v. égaies)

ELGARREN OGI

T./X. Iratzeder.

Harm./J. Urteaga.

I. *p* *mf*

II. *p* *mf*

B. *p* *mf*

1. El-ga-rran o- gi zu, zai-tu- gu zu : Bi-riotz- ez du-gun bat e-
 2. Fe-de-an az- kar xut ga-bil- tzan gaur, gu bai- tan e-man zuk in-
 3. Kris-to-ren bai-tan gu be-gi- ra bat : za- ru- tik be-ha zuk, Ai-

OU OU

I. *p*

II. *p*

B. *p*

1. gin. Mun-du- ak o- rai dei e- gi- ten du : mai- ta-
 2. dar. Lu- rre- ko gaitzek ez gaitza- ten gal, be- har-
 3. ta. He- ga- len pe- rat bil gaitza- zu bil, gaitz- ki-

1. OU dei e- gi- ten du :
 2. OU ez gaitza- ten gal,
 3. OU bil gaitza- zu bil,

I.

II.

B.

1. sun go- sez hain du min. En-tzun bai, Jauna, gu- re bai- tan sar,
 2. ko du- gu ainitz kar. Zu la- gun, Jauna, gu no- rat ez joan,
 3. an tra- ba ken-du- ta. Gu- zi- ak a- nai, pitz de- za- gun su :

1. go- sez hain du min. 1. Jaun- a, gu- re bai- tan sar,
 2. du- gu ai- nitz kar. 2. Jaun- a, gu no- rat ez joan,
 3. tra- ba ken-du- ta. 3. a- nai, pitz de- za- gun su :

I. *mf*

II. *mf*

B. *mf*

1. de- za- gun maita zu- re- kin : Mundu- ak o- rai dei e- gi- ten du :
 2. maita- tuz bai zu, bai el- gar. Lu- rre- ko gaitzek ez gaitza- ten gal,
 3. bai e- ta her- ra e- zez- ta. He- ga- len pe- rat bil gaitza- zu bil,

1. de- za- gun maita zu- re- kin. OU
 2. maita- tuz bai zu bai el- gar. OU
 3. bai e- ta her- ra e- zez- ta. OU

The image shows a musical score for a piece titled "IRATZEDER-I" by Manuel Lekuona. The score is written for three voices and piano. The top staff is for the piano, starting with a piano (p) dynamic marking and a fermata over the final measure. The bottom staff is for the voices, with three parts: 1. (Soprano), 2. (Alto), and 3. (Tenor/Bass). The lyrics are in Basque. The score is divided into two systems by a vertical bar line. The first system contains the first two lines of lyrics, and the second system contains the last two lines. The piano part has a melodic line with some grace notes and a fermata at the end. The vocal parts have a simple, rhythmic melody.

1. mai-ta- sun go- sez hain du min.
2. be-har- ke du- gu ai-nitz kar.
3. gaizki- en tra- ba ken-du- ta.

1. go- sez hain du min.
2. du- gu ai- nitz kar.
3. tra- ba ken- du- ta.

Editions "Ezkila" (Déc. 1971), Abbaye de Belloc. — Reproduction réservée.

III

— Pertsu berri egitean ez dut sekulan, dakitanaz, bihotz barnekoak agertzeaz bertzerik bilatu.

Bide hortan nere erakaslea, erakasle hoberena eta kasik bakarra euskal-kantua izan da.

Uztaritze-ko apezgaietan sartu-eta, lagunak pilotan ala hizketan ari zirelarik, ni euskal-kantu zerbeit zakiten lagunen ondotik nindabilan.

Horrela buru-bihotzetan sartu nituen ehun, berrehun kantu edo gehiago; eta kantuak orraz-tatuak ziren ele neurtuetarik ikusi ta ikasi nuen nolaz pertsuak egin.

— Eihalarre-Gorriaineko ikasle-lagun bati banindoakion egun oroz, euskal-hitz zerrenda bat eskutan: ea zer zuten erran-nahia.

Hamar edo hogoi bat euskal-hitz sartzen nituen, goiz-arrats guziz, gogo-bihotzetan.

Horiek hola, lagunek erraiten zautaten maiz: euskal-hitz eta euskal-kantuz hartuegia nintzela; eta bazterretik zioten: "Ai! hoin euskaltzale ez balitz.."

Halako duda bat sartu zitzaitan, azkenean. *Lafite* apezari joan nintzaion galdezka: "Xoroa naizela diote. Hala ote naiz?" *Lafife-k* orduan: "Ai! holako xoro ainitz balitz gure gaztetan ..."

Hainbertzenarekin, horra Afrika-ko basa-mortutik eskuratu nuela: osaba-misionest bizar-xuriaren hitz bat euskara garbian, hitz bat berriz argitu ninduen: "Zure euskararen amodioa, Jesus-en bihotzari dario".

— Hogoi-ta hamabortzean Atarratzen izan zelarik euskaltzaleen Biltzarra, harat joan nintzen nere anaiekin. Hamabortz urte nituen, orduan; eta huna nola aipatua izan dutan geroztik egun kartsu hura:

Zer gizonak!

Dena begi zagon mutiko bat nintzen...
Orroit naiz eguerdi batez, Atharratzen,
Gizon horiek ikusirik, aditurik, miretsirik:
Zer gizonak!...
Argi-zabaltzerik ez da hain argi eta su,
Ez itsaso uhainik hain tiraintsu,
Ez eta euskal-mendirik hain gorarik,
Nola baitziren gizon horiek... gizon!
Ikusten ditut oraino xutitzen,
Mintzatzen, kantatzen
Aitzol, Eizagirre eta Monzon.

Ikusten ditut heien behakoak,
Aditzen heien mintzoak, heien kantu beroak.
Aitzol! barneko suak jana,
Euskal-arimari osoki emana.
Aitzol eta *Eizagirre*,
Besoak zabal ta bihotzak zenbates zabalagoak.
Mendiz hunaindiko jendeari
Oihuz eta kantuz ari.

Aitzol, Eizagirre eta *Monzon*
Euskal-gazten argi, euskal-lurreko arimadun lore hura,
Guri oihuka, otoizka, deiadarka:
Herriari pilpira, Herriari Euskara
Indar guzi-guziez ginezon
Atxik eta begira.

Zer gizon bihotzdunak!
Zer gizonak!

— Ondoko urtean, buru-lan gehiegiz naski, eritu nintzen; eta, *Larresoro-Gaztelua-n* nuen izebaren ganat igorri ninduten, indar-berritzerat.

Zuhaitzen pean etzanik edo pianoan jarririk, sei hilabete iragan nituen hor, "Gure Herria" aldizkarian ziren kantuak ikasten eta heien euskal-mamiaz bazkatzen. Aita Donostiak hor argitarazi euskal-kantuetarik zenbat ez dut han ikasi.

Sendatu nintzen, hemezortzi urtetarat heldu izan eta *Domintxine-ko* Euskaltzaleen Biltzar-
rerrat joan. Basarri aditu nuen han; eta neronek gero partsutan aipatu:

Ikusi izan zaitut atzo, Domintxinen.
Zure hats azkarrari pertsua zarion...
Eleketa bezala lasai ari zinen.
Bakotxak harriturik "hau gizona" zion.

Zure hatsak ez zauzkan eleak botatzen
Ez, Euskaldun mendien usaino gozoa,
Abendaren indarra, nituen aditzen,
Haize-hego epela eta itsasoa.

Sort-Herria zarion zure ahoari.
Zu behin ikusirik ez deia ametsa?
Zoin ahalgetzen naizen erranez: Basarri!
Ametsezko hatsa!...

Basarri,
Nundik daukazu
Hats hori?
Nundik duzun erradazu,
Odol kea bezein suhar,
Itsas haizea bezenbat azkar?

Basarri,
Nundik daukazu
Hats hori?
Bainan ez ote zaizkitzu,
Gerlan hil Euskalduneri
Joan azken hatsak, zuri etorri?

— Pertsu egiten hasi naizen lehen urtetan, ez nakizkan xuxen pertsu egiteko legeak. Kantu bat hautatzen nuen; eta, soinu neurriari jarriz, ari nintzen.

Hala-nola: "Iruten ari nuzu" kantuari jarriz, ontzen nituen 7 eta 6 piko-koak. "Ara nun di-ran" edo "Ttipi ttipitik" kantuari jarriz, 5, 5 eta 8 piko-koak. "Orhiko xoria" kantuari jarriz, 8 eta 7 piko-koak.

Gero, —denen ixilik beti kantatuz, haatik—, neronek asmatu neurri berrietan ere ari nintzen edo... "Zer gizonak" olerkian bezala, deus nuerriri jarri gabeko bihotz-hatsaren araberan.

Berrogoi-an, Alemanek beretu dutelarik Baiona-ko apezgai egoitza, aurkitu ginuen guk Kaputxinoetan aterbe. Eta horra, hain xuxen, zenbat aste iragaiten dituela hor, bere kantuetan hain aspalditik maite nuen: *aita Donostia*. Lagundu ninduen, nik asmatu *Eguerri-ko* ikusgarri batentzat soinuk moldatuz edo bozetan ezarriz. Orduko hiruzpalau bozetako kantu-apaintzez bertzalde, baditu nere laguntzaile bertze hameka eginak eta bereziki *Gau saildu-ko* kantu unikigarri hura.

Tous les jeunes ont, de naissance, une étincelle d'en haut dans le coeur, une étincelle (suscitée par le Seigneur) que la vie affaiblit, éteint ou au contraire attise et fait flamboyer.

J'ai eu la chance et la grâce de recontrier des prêtres comme l'abbé Urricariet ou l'abbé Lafitte et de grands musiciens basques comme Gabriel Lerchundi, Pierre Narbaitz, Tomás Garbizu, Jose Olaizola, Francisco Bongou, Juan Urteaga et puis même le P. Donostia.

Ecoutons son GAU SAINDUA.

T/Iratzeder
M/P. Donostia
Harm./J.Urteaga

OI GAU SAINDUA !... / HAU DA EGUNA...

I.1'
3-4 v.ég.

Andante

REFRAIN Oi gau sain- du- a- do- hatsu- a- , Baz-ko ar- gi- ak
Hau da e- gu- na- Jau- na-re- na- : Gaur pistu bai-ta

ar- gi- tu- a- ! Ge- rraitu- a da be- ke- tu- a-
Je- sus Jau- na- , Pitz e- ta kan- ta: Ku- na Jai- na !

Oi gau sain- du- a- , pitz mun- du- a- :
Zer zo- ri- o- na- ! Zer e- gu- na!

Belloc : 1971

1. Oi gau sain- du- a- piz- ga- rri- a,
 2. Baz- ko gau- an da- li- bra- tu- a
 3. Baz- ko gau- an da- es- kai- ni- a

1. Do- ha- ka- be- ak- boz- ka- ri- a,
 2. De- na lo- ka- rri- zen- muz- du- a,
 3. Jau- na- ren Bil- dots hain gar- bi- a.

1. Gaur Baz-ko du- gu- hau lo- ri- a !
 2. Je- su- sek piz- tuz : " " " "
 3. Ha- ren o- do- lak : " " " "

1. Hil- ha- rri- pe- tik zer ar- gi- a :
 2. E- rrau- tsi- a du i- fer- nu- a :
 3. Gar- bi- tu- a du lur gu- zi- a :

Da capo

IV

— *Lekarotze-n* iragan dituen azken hilabetetan, izan nuen *aita Donostia-rekin*, euskal-kantuez bai-eta goiko gauzez, ezin ahantzizko kizketa.

Ordukotz ni ere fraidetua nintzen, Beloke gainean finkatua. Han sartu-eta zenbeit ilabeteren buruan, etorri zitzaitan aita Gabriel *Lerchundi*: herriz herri kantika xahar biltzen ibili ondoan, *Kantikak* liburua argitaratzerat zoala, bainan huts handi batzu bazirela eta kantika berri beharretan zela. Kantika-gaiak emaiten zauzkitan eta nik esku-lan orduetan, erdi-ameska erdi-aintzurka, koplak ontzen...

Bere hiru ehun eta hirurogoi ta hamar kantikekin agertu zen, 48-an, liburua; eta hoitan baziren hirurogoi nik asmatuak, xuxenduak edo osatuak.


— Handik laster, joana baitzen aita *Lerchundi Jerusalemeko* gure fraidetxerat, idatzi zautan, berrogoi-ta hamabiko otsailaren 12-an, salmoak euskal-elizek kantatzekotan nola behar-ko ziren euskaralatu. Pertsutan egin behar litezke, herriak errexi kanta ahal ditzan; eta pertsuek, gizonaren hatsari zoaken gisan, bortz eta lau piko beharko zituztela, "Hor zare Jesus alda-rean" kantuaren araberan.

Lehen bortz pikoak doblatuz edo ez, hasi nintzen, beraz, horrela Igandetako Bezperak euskaraz ezartzen. Ordu arte latina izanik ere gure elizetan nausi, baimena eman zautaten lehen euskal-salmo hoik kantarazteko. Erran dut maiz eta hala gertatu izan da: larre-sua bezala hedatu ziren herriz herri salmo hoik.

—Europako liturgi-biltzarrean *Strasbourg-en* izanik, ohartu nintzen Elizako latinaz bertze herri-mintzairak oro onartuak izanen zirela laster elizkizunetan. Hain xuxen, urte oso batez ezongi eta etzanik egon beharrez, izan nuen ehun eta berrogoi-ta hamar salmoak euskal-kantutan itzultzeko ahala. Aita *Lerchundi-k* denak oro soinuz apaindu zituen; eta, hirurogoi-ta laueko Kontzilio bururapenerako, denak inprimatuak izan ziren, Bizkaitar adiskide batzueri esker, bai eta, Baiona-ko Apezpikuak eskaturik, *Erroma-ko* baimenez aberastuak. (II oharra p. 508).

Euskal-salmo hoitarik lehen lauak bozez apaindu eta aberastu dauzkigun lehen soinularia: Jose *Olaizola*, Santa Maria-ko organo-joile bihotz handikoa. Kantu-gaitzat Garizuma lehen igandeko "Invocabit me" hartu zuen; nik eskatu bezala:

"Jaun Goikoaren hegalean pean,
zer bakean, zer bakean !..."



Entrant au monastère en 1941, je pensais que c'en était fini pour moi de faire des chants basques...

C'était l'époque où, au terme d'une enquête musicale à travers les paroisses, le P. Gabriel Lerchundi se décida à publier son important KANTIKAK, corpus du cantique basque, comprenant quelque 370 mélodies.

Des textes manquaient ou exigeaient une refonte doctrinale: ce fut mon premier travail de moine. Puis vint l'après Concile, l'édition des psaumes en euskara et enfin la requête des chorales manquant d'harmonisation à 3 et 4 voix.

Voici le psaume 90 de Jose Olaizola

JAUN GOIKOAREN HEGALEN PEAN...

V

—Geroztik, euskal-liturgia gure elizetan bizi-arazteko, *Andiazabal*, *Larre* eta bertze apez edo fraide batzuekin, astelehen oroz bildu ginen hamar bat urtez Beloke-n. *Zumarraga-ko* apez-biltzarrean Eliza guzientzat euskal-liturgia bakarra sor-arazi baino bi urtez lehenago, hasiak ginen gu *Baiona* aldeko euskal-elizetan; urte guziko irakurgaiak eta Aldareko Liburu osoa argitaratuak ginituen.

Euskal-liturgi bakar bat izan dadin, hor erabaki zireneri jarri ginen. Ordu arte egin ginituen kantuetarik asko hartu zituzten halere.

Kantika berri asmatzen eta hedatzen aitu naiz aintzinat, aita *Lerchundi-rekin*. Lapurtar-Baxenabartar euskarari behatuz eman dauzkit, haatik, idatz-lege berriak. Ez du gure euskarak azentorik; azken hizkia bakarrik du haztaduna. (III oharra p. 508).

—Geroztik egin bortz-pasei ehun kantuetan, idatz-lege horieri jarri naiz, bai aita *Lerchundi-rekin*, bai *Garbizu-rekin*, bai eta azkenik *Urteaga-rekin*.

Ene ametsa hau liteke orai: *Urteaga-k* utzi dauzkitan soinu-lanak argitaratzea; eta, hasia zuen "Dabid artzain eta iheslari" euskal-opera, bertze soinulari bati esker bururatzea.

Nous avons depuis deux ans lancé la nouvelle liturgie, dans les paroisses basques du Diocèse de Bayonne; et voilà que, lors du Congrès de Zumarraga, fut décidée l'unification des textes destinés aux cinq Diocèses bascophones.

Beaucoup de nos mélodies ont continué, cependant, à être utilisées.

Pour terminer, voici un dernier "pertsu".

Z.90
(3 v.égales)

JAUN GOIKOAREN HEGALEN PEAN

(Salmo 90)


Iratzeder (1963)
J.Olaizola (1964)

Solo (audante)





Jaun-goi-ko a-ren he-gal-en pe-an, zer ba-ke-an! zer ba-ke-an!

Salmo (allegro)



1. Jaun-goi-ko a-ren he-gal-en pe-an, zer ba-ke-an! (1)
Jaun-a-ri di-ot: "Ne-re ge-ri-za zu-re bai-tan:

2. Ez dai-te-ke sar a-tse-ga-be-rik zu-re bai-tan, (2)
Ain-ge-ru-e-ri di-o-te zu-taz Jaun-ak e-ran



1. In-dar gu-zi-ak di-tu-en-a-ren i-tzal-e-an.
Bi-hoz gu-zi-az na-ga Jaun-a-ren es-ku-e-tan".


2. Ez min-ik e-re, gau-az lo-zau-den to-ki bar-tan.
Zu-re zaintze-ko mundu-ko bi-de gu-zi-e-tan".



Jaun-goi-ko a-ren he-gal-en pe-an, zer ba-ke-an! zer ba-ke-an!



In-dar gu-zi-ak di-tu-en-a-ren i-tzal-e-an, i-tzal-e-an.



Jaun-a-ri di-ot: "Ne-re ge-ri-za zu-re bai-tan.



Bi-hoz gu-zi-az na-ga Jaun-a-ren es-ku-e-tan".

Ixildu aintzin, nahi ditut eskerrak eman, nintzen hamabi urteko mutikoaren bihotzean, Jainkoaren eta Herriaren maitasuna eman dauteneri.

Izan ditut nik..

Izan ditut nik eta, nik uste,
Baditut beti hamabi urte.

Baditut beti hamabi urte:
Orduan naiz ni ametsez bete.

Orduan naiz ni ametsez bete,
Fraiden artean apeztu arte.

Fraiden artean apeztu arte,
Nere ametsek ereman naute.

Nere ametsek ereman naute,
Baitakit Jaunak zoin nauen maite.

Baitakit Jaunak zoin nauen maite,
Beti dut hartan bihotza gazte.

Beti dut hartan bihotza gazte:
Baditut beti hamabi urte.

(18/10:85)

Nere azken hitza: gauden gazte, euskal-sua pizteko,
gu baino gazteagoen bihotzetan.

Gainerateko Oharrak

- I. "EZKILA"-ri, 1951-ko haste hartan,
laguntza emaileak
- II. EUSKAL-LITURGIA sortu zuen
Biltzarreko eguna.
- III. Aita Lerchundi-ren
kanturako idatz-legeak.

Oharrak

I. *EZKILA-ri*, 1951-eko haste hartan, *laguntza emaileak*:

- Manuel de *Ynchausti*, Uztaritze-koa
- *Etcheverry-Ainchart* aita-emeak, Baigorri-koak
- Telesforo *Monzon*, Donibane-Lohitzune-koa
- Garazi-ko *Inchauspe* anderea
- Louis *Dassance*, Uztaritze-koa
- Ramon *Belaustegigoitia*, Caracas-ekoa
- Marcos eta Jesus *Muñoa*, Donibane-Lohitzune-koak
- Martin *Garcia Urtiaga*, Mexico-koa
- Isidro *Monzon* Bergara-koa
- Ramon *de la Sota*, Miarritze-koa

II. Euskal-liturgia sortu zen eguna

1964-eko martxoaren 17-an, Baiona-ko apezgaitegian bilduak ziren, jaun Apezpizkuarekin, Euskal-Herriko erretorak.

Aita Roguet liturgizale aipatuaren ondotik, mintzatu beharra izan nintzen:

- lehenik, Mezako irakurgaiak kantuz adi-arazteko molde berriaz;
- bigarrenetik, bai liturgirako, bai fededun bilkuretarako beharrezkoak ginituen euskarazko irakurgetan. Agerkari bat hortarako sortu arte, zer gatik ez balia: *Otoizlari*, Beloke-ko ila-betekaria?

"Zer zaitzue, du galdatzen Apezpikuak; beharrezkoa ote da?"

— "Bai" dute boz batez denek ihardesten. "Baitezpadakoa" dio ere boz batek.

"Ederki. Lagun dezagun, beraz, elgar".

Erabaki zen berehala: hogoi liberako bana emanen zuela parroki bakoitzak.

III. Huna hemen, garbiki eta laburzki, idatz-lege hoik. Soinu-kantutan, haztadun litezken hizkiak hauk dire:

1-k: Solas-aldi bururatzetan, hitzaren azken hizkia.

Hala-nola:

A) *Bi- hotz e- ta go- goz bat ...*
 (Ez, beraz : Uholde baten pare ...
 bainan : Uholde baten pare ...)

B) *U- rrundik i- kusten dut, i- kusten mendi- a .*

2-ik: Hitz-erro batean, azken aintzineko hizkia: hau ere haztaduna. Holakotan

— hizki horri behar zaizkio bi nota eman:

la- gu- na-re- kin



Jean Haritschelhar Jna., Xabier Diharce "Iratzeder" Jna., Gregorio Monreal Jna., Isabelle Ajuriaguerra And.



Tomas Uribeetxebarria Jna., Argitxu Noblia And., José M.^o Muñoa Jna.,
M.^o Carmen Garmendia And., Fco. Javier Marcotegui, Jna., Joseba Arregi Jna.



Gregorio Monreal Jaunak, Xabier Diharce "Iratzeder" Jaunari "1994 Manuel Lekuona Saria" ematen dio.



Otxote Ozenki